



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroak 22

Vitoria-Gasteiz, 22 de noviembre de 2022

Eusko Jaurlaritza

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Eusko Jaurlaritzak indarkeria matxistaren adierazpen guztiak gaitzetsi nahi ditu gaur, azaroaren 25a, Emakumeen aurkako Indarkeria Matxista Ezabatzeke Nazioarteko Eguna, ospatzeko hiru egun falta direla, eta bere konpromisoa adierazi nahi du beste erakunde batzuekin eta gizarte osoarekin koordinatuta lan egiten jarraitzeko indarkeria desagerrarazteko helburuarekin.

Azaroaren 25ean, berdintasun eza eta indarkeria matxistaren arazoari herri bezala erantzuteko beharra nabarmendu nahi dugu, gizarte osoaren arazo baten aurrean, erantzunak bateratua izan behar baitu. Horrela, koordinazioa indartuko duten urratsak ematen jarraituko dugu: indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobea emateko Erakundeen arteko III. Akordioa sinatuz; emakume biktimen espedienteen kudeaketa integratuaren proiektua aurrera eramanez; eta, besteak beste, Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzetarako Herri ituna bultzatuz.

Koordinazio horren erakusgarri da, hain zuzen ere, Emakundeek urtero egiten duen azaroaren 25eko kanpaina. Aurten, Euskadiko erakunde guztiak sinatu dugu: Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELEk, gure herriko udalerrien ordezkari gisa. Kanpaina hau gizonei zuzenduta dago, eta gizonak dira indarkeria matxistaren aurrean altxatu eta ezetz esaten dutenak. Beharrezkoa ikusten dugu gizonei zuzentzea eta mezu hau bat dator, gainera, Europako Kontseiluaren Istanbulgo Hitzarmenaren jarraibideekin, Berdintasunerako Legearekin berarekin edo Berdintasunaren aldeko Herri Itunarekin. Horiek guztiak gizonen eta haurren sentsibilizazioa eta inplikazioa bultzatzea eskatzen dute.

Azkenik, indarkeria matxistaren ondorioz erailak izan diren emakumeak gogoratu nahi ditugu, emakume biktimei gure babes eta elkartasun guztia adierazi nahi diegu, eta gogoratu nahi diegu Gobernu honek dituen baliabide eta zerbitzu guztiak eskura dituztela, eta 900 840 111 telefono zenbakia dela hauetara heltzeko sarbide nagusia.

Era berean, herritarrak animatu nahi ditugu azaroaren 25ean antolatuko diren deialdietan indarkeria matxistaren aurrean gaitzespena publikoki adierazi dezaten, horrela emakumeen aurkako indarkeria gizarte osoaren arazoa dela erakutsiz.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO AP-68 AUTOBIDEAREN AVASA EMAKIDADUNAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA EZARTZEARI

- **Hitzarmena emakida bukatu arte, 2026ra arte, egongo da indarrean**
- **Bide Segurtasuna hobetzeko lankidetzeta eta informazio-trukea arautuko ditu**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Segurtasun Sailaren bidez, AP-68 autobidearen CESAU – Eusko-Aragoier Autobidea (aurrerantzean, AVASA) emakidadunarekin lankidetzeta-hitzarmena ezartzeari.

Bi administrazioen ustez komenigarria zen Bide Segurtasunean eragina duten euren eginkizunen eraginkortasuna hobetzeko elkarlan- eta lankidetzeta-esparru bat ezartzea. Horrela, hitzarmen honek, besteak beste, erraztuko du trafikoari eta istripuei buruzko datuak, trafiko-kameren irudiak edo mezu aldakorreko panelek ematen duten informazioa, oro har, trukatzeta. Bestalde, errepidean ekipamenduak instalatzeko baimenen tramitazioa arintzeko aukera ere emango du.

IRAUPENA ETA EZARPEN-ESPARRUA

Hitzarmen honen ezarpen-esparrua EAetik igarotzen den AP-68 autobidearen zatia, 0 kilometrotik 77,597 kilometrora artekoa, izango da, eta AP-68 autobidearen emakida bukatu arte, hau da, 2026ko azaroaren 11ra arte, egongo da indarrean.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK PANDEMIA BATEK ERAGINDAKO BESTE OSASUN-LARRIALDI BAT GERTATUKO BALITZ EUSKAL ERAKUNDEEK EGIN BEHARREKO KUDEAKETA HOBETZEKO LABI PROZEDURA BERRIA ONARTU DU

- **Helburua da, Covid-19aren krisian lortutako esperientziatik abiatuta, erakundeen arteko erantzuteko gaitasun teknikoa hobetzea, era horretako larrialdi bat berriz gertatzen bada ere**

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio gaur pandemia batek eragindako beste osasun-larrialdi bat errepikatuko balitz erakundeen artean egin beharreko kudeaketarako prozedura berriari. Agiria joan den asteko astelehenean aurkeztu eta onartu zuten Euskadiko Babes Zibileko Planaren Aholku Batzordearen (LABI) bileran, eta euskal erakundeek Covid-19aren krisian lortutako esperientzia zabalean oinarritzen da. Helburu nagusia du Eusko Jaurlaritzaren tresna arau-emaileak aldatzea, pandemia-egoera global edo tokiko bat berriz gertatuko balitz, erakundeen artean erantzun koordinatu eta integrala emateko.

Covid-19ak eragindako osasun-larrialdiko urteetan izandako esperientziaren ostean, euskal erakundeek pandemia honen kudeaketaren hausnarketa- eta analisi-prozesua egin eta partekatu dute, eta baliagarria izan da prozedura tekniko berri bat lantzeko, LABIk, Euskadiko Babes Zibileko Planak, pandemia-egoeren kudeaketari dagokionez jada badugun ezagutzaren araberako erantzuna eman ahal izateko.

Legegintzako konpromisoa

Testu hau onartu eta gero, pandemien ondorio diren osasun publikoko egoera kritikoei aurre egiteko plan espezifiko bat egiteko Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoa betetzen da.

Azken batean, pasa den pandemian hautemandako errealitateen arabera era horretako egoerei aurre egiteko prozedura ezartzen duen agiria da. Horrez gainera, Gobernu Kontseiluan onartuko den testuan erakundeen artean era horretako larrialdiak kudeatzeko prozedura planifikatzen da. Erabilgarri dauden jardunbide eta ebidentzia onenekin eta OMEren eta Gaixotasunak Kontrolatzeko Europako Zentroaren nazioarteko jarraibide eta gomendioekin lerrokatu dago.

Covid-19 Euskadi

Osasunaren Mundu Erakundearen zuzendari nagusiak 2020ko urtarrilaren 30ean deklaratu zuen Nazioarteko Garrantziko Osasun Publikoko Larrialdia, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioen hedapenaren ondorioz. Martxoaren 11n OMEk nazioarteko pandemia deklaratu zuen.

Martxoaren 13an Euskadik Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) aktibatu zuen, eta hurrengo bi urteetan hiru aldiz egon zen aktibatuta guztira 19 hilabetetan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK BAZTERTU EGIN DU HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA PROPAGANDA ELEKTORALAREN BIDALKETA ZENTRALIZATUAZ ARDURATZEA

- **Egungo Legea aldatzearen aurkako iritzia azaldu du**

Jaurlaritzaren Kontseiluak uko egin dio Elkarrekin Podemos-IU legebiltzar taldeak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legea aldatzeko egindako lege proposamena aintzat hartzeari. Alderdi horrek gutun azalak, boto-paperak eta hauteskunde propaganda modu zentralizatuan eta komunean bidaltzeko sistema bateratua ezartzea proposatzen du, eta proposatzen du Hauteskunde Administrazioak egitea bidalketa zentralizatua.

Bere asteroko bileran, Gobernu Kontseiluak Legea aldatzearen aurkako iritzia azaldu du, Hauteskunde Administrazioak (lurralde historiko bakoitzeko hauteskunde batzordeek eta hauteskunde mahaiek osatua) ez baitu eginkizun hori, ezta lan horiek bere gain hartzeko gaitasunik ere, berez izaera “erdijudiziala” duelako. Ildo horretan, gogoratu behar da indarrean dagoen Legearen 13.1 artikulua helburua dela hauteskunde prozesuaren gardentasuna eta objektibotasuna bermatzea, bai eta kargu publikodunak eskuratzeko berdintasun printzipioa ere, auzitegiei dagozkien eskumenen kalterik gabe.

Hauteskunde batzordeek ez dute hauteskunde mekanikako eta kudeaketa hutseko arazoetarako agindurik, eta, hauteskunde materiala masiboki bidaltzeaz arduratuko balira, ez daude horretarako prestatuta. Proposatutako legearen aldaketarekin lortu nahi den eginkizun esleipen hori ez dator bat ez jatorrizko helburuarekin, ez gaur egungo osaerarekin eta funtzionamenduarekin.

Halaber, lege proposamenak dio bidalketa bakarra erabili nahi duten alderdi politikoek eta koalizioek indarrean dauden formatuak bete behar dituztela, eta, gainera, hauteskunde propaganda osatzen duten elementuak erregelamendu bidez finkatu beharko liratekeela. Eusko Jaurlaritzaren ustez, horrela, hauteskundeetara aurkezten diren alderdi, federazio edo koalizioen askatasuna mugatu eta estutu egingo litzateke. Horrela, beren propaganda jardueraren zati handi bat erregelamenduzko arau baten baldintzen mende egongo litzateke.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren ustez, lege proposamenak akatsak ditu teknika juridikoan, dagozkion artikulua aldatzea planteatu beharko lukeelako hauteskunde administrazioaren eskumen berri hori jasotzekotan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZUPEKO LANGILEEN ORDAINSARIEN %1,5EKO IGOERA GEHIGARRIA ONARTU DU 2022RAKO

- **Gobernu Kontseiluak gehikuntza gehigarria onartu du, eta dagoeneko gauzatuta dagoen %2ari gehituko zaio**

Gobernu Kontseiluak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsarien %1,5eko igoera gehigarria onartu du gaur, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera. Gehikuntza hori, aurretik onartutako %2ko igoerarekin batera, %3,5eko igoera egiten du 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin alderatuta. Prezioen igoerari aurre egiteko aplikatzen den neurria da.

Behin-behineko langileen ordainsariak %3,5 igoko dira 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean, antzinasunagatik legezkiekeen ordainsariei kalterik egin gabe. Bestalde, EAeko Administrazio Orokorreko, haren erakunde autonomoetako eta Osakidetzako lan kontratuko langileen ordainsariak ere ehuneko horretan igoko dira.

Hezkuntza

200.000 EURO DOKTORE IKERTZAILEEN MUGIKORTASUN-PROGRAMARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du doktore ikertzaileen mugikortasun-programarako dirulaguntzak arautzen dituen Agindua.

200.000 euroko diru-kopuruarekin, deialdi honek dirulaguntzak eskaintzen ditu ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko –dedikazio eskusiboarekin-, I+G+i-ko erakunde eta zentroetako unibertsitate-irakasleen eta ikertzaileen mugikortasun geografikoa sustatzeko eta, era horretan, haien gaitasunak eta ikerketa-taldeen lehiakortasuna hobetzeko helburuz.

Ikertzaileen mugikortasun-programa hau bi modalitatetan garatzen da:

- A modalitatea, ikertzaile seniorren mugikortasunerako, langile iraunkorrenzat (150.000 euro)
- B modalitatea, ikertzaile juniorren mugikortasunerako, langile ez-iraunkorrenzat (50.000 euro)

Laguntza hauen onuradun izan daitezke Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente gisa ziurtaturiko entitateak. Euskaditik kanpo kokatutako ikerketa zentroetan egonaldiak egingo dituztenak, aldiz, laguntzen eskatzaile den entitatearekin lan-harremana duten ikertzaileak izango dira. Euskal ikertzaileak gehien bat mugitu izan diren ikerketa zentroak honako herrialde hauen egon ohi dira: Erresuma Batuan, Alemanian, Amerikako Estatu Batuetan, Australian, Txilen, Kanadan, Suedian, Danimarkan edo Zeelanda Berrian, besteak beste. Ikertzaile horiek doktore izan beharko dute, eta gutxienik bi urteko antzintasuna laguntza jasoko duen entitatean.

Kanpoko egonaldian, bertako ekipoaren lan-ildoan integratuta dagoen ikerketa-proiektu bat, edo trukeak eta maila handiko lotura zientifikoak ezartzera bideratutako beste jarduera batzuk egin beharko ditu ikertzaileak. Egonaldi hau 2023 urtean burutu beharko da, eta gutxienik bi hilabete eta gehienez sei hilabeteko iraupena izango du.

Ikertzaileentzako mugikortasun-programak tresna egokia dira, ikerketa sustatzeko Hezkuntza Sailaren lan-ildoan baitan, Euskadiko komunitate zientifiko eta teknologikoa prestigio handiko ikertzaileekin harremanetan jar dadin, bai eta unibertsitateko irakasleen ezagutza zientifikoak eta teknikoak eguneratu eta hobetzeko ere.

Hezkuntza

**500.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EUSKAMPUS FUNDAZIOARI,
LANKIDETZARAKO MUGAZ GAINDIKO LABORATEGIEN SAREA
GARATZEKO**

- **2015ean ekimena abian jarri zenetik Lankidetzarako Mugaz Gaindiko lau laborategi sortu dira, Euskampus-Bordeaux Campusaren esparruan**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 500.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea Euskampus Fundazioari, LTC-Sarea ekimena garatu dezan, hau da, Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategien Sarea.

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategiak (LTC) bikintasuneko ikerketa nazioartekotzen duten ekimenak dira, eta berrikuntza sustatzen dute ikerketatik abiatuta. Esparru egonkor bat eskaini nahi dute esparru espezifikoko jakin batean ikerketa-proiektuak gauzatzeko, emaitza zientifikoen balio erantsia handitzeko eta mugaz gaindiko baterako ikerketaren ikusgarritasuna handitzeko Europako Batasunen eta nazioartean.

Mugaz gaindiko ikerketa komunitateak

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategiak 2015az geroztik garatzen dira Euskampus Bordeaux Campusaren esparruan, Bordeleko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean. Euskampusen bazkide estrategikoak (Tecnalia eta DIPC) eta IdEx Bordeaux ere ekimenaren sorreran daude, bai eta laborategiaren helburuak lortzen lagun dezaketen EAEko edo Frantziako beste ikerketa-erakunde batzuk ere.

Erakunde-esparru egonkor bat eskaintzen du ekimen honek, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Bordeleko ikerketa-taldeek elkarrekin lan egin dezaten eta benetan mugaz gaindikoak diren ikerketa-komunitateak sortzen lagun dezaten, ikertzaile junior edo seniorrak eta ikasleak tartean sartuz. Hauek ikerketa-talde batetik bestera mugarik gabe igaro daitezke eta horrela ikuspegi komun bat partekatu.

Ekimenaren sorreratik, Lankidetzarako Mugaz Gaindiko lau laborategi sortu dira:

- Kimika fisikoan eskala kuantikoan, QuantumChemPhys
- Ingeniaritzan, AENIGME (Fabrikazio Berdeko eta Ekodiseinuko Akitania Euskadi Sarea)
- Matematikan eta bere aplikazioetan, TRANSMATH
- Zementu-oinarri jasangarrietan konposatutako materialetan, GREEN CONCRETE

Lankidetzarako Mugaz Gaindiko Laborategi hauek mugarri bat izan dira mugaz gaindiko eta Euroeskualdeko campusa garatu eta sendotzeko.

Euskampusi, patronatua osatzen duten erakundeetako ikerketa-taldeen eta Bordeleko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren eragile katalizatzaile, bideratzaile eta dinamizatzaile gisa, LTCak diseinatu eta inplementatzea dagokio. Helburu nagusia izan da egonkortasun-esparru bat ematea taldeen arteko lankidetzari, aldez aurretik behar bezain ibilbide sendoa izanik, talde hauek ikerketa partekatuaren agendaren barruan proiektu estrategiko berriak bultzatzen baitituzte.

Euskampusiek, LTC bakoitzarekin sinatutako hitzarmenen bidez, laborategi bakoitzak egiteko konpromisoa hartzen duen ikerketa-proiektuek eragindako gastuak eta inbertsioak finantzatuko ditu.

Hezkuntza

500.000 EURO DIPCri, NEUTRINOEN FISIKA-LABORATEGIA HORNITZEN JARRAITZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Donostia International Physics Center Fundazioari (DIPC) 500.000 euroko dirulaguntza zuzena ematea. Laguntza hori Neutrinoen Fisika-Laborategia langilez hornitzeko eta ekipatzeko baliatuko du DIPCek.

Euskadiko neutrinoen programa ikerketa-programa aitzindaria da Europan. Helburua du EAEn bikaintasuneko ikerketako azpiegitura berezi bat sortzea, neutrinoen fisika funtsezko eta aplikaturako tresnen eta sentsoreen garapenean espezializatua. Zehazki, DIPCk zuzentzen du ESS Lunden neutrinoak modu koherentean sakabatzeko anbizio handiko esperimendu baten proposamena. Ikerketa-arlo hori garatuz eta indartuz, neutrinoen fisikan esparru berriak esploratu ahal izango dira, funtsezko aurkikuntza-potentzialarekin eta Euskadiko ikertzaileen lidergo sendoarekin. Horrela, Euskadira itzulera zientifiko handia lortuko da, eta Europako Espalazio Iturria (ESS Lund) gehiago erabiliko da; izan ere, horren eraikuntzan, Eusko Jaurlaritzak ahalegin eta apustu handia egiten ari da ESS Bilbaoren bidez. 2024 inguruan, ESS energia baxuko neutroi eta neutrinoen iturririk indartsuena izango da munduan.

Laguntza honen helburu nagusia DIPCn Neutrinoen Fisika Laborategia langilez hornitzea eta ekipatzea da. Euskadiko neutrinoen programaren helburua da Suediako Lund udalerrian dagoen Europako Espalazio Iturrian (ESS) neutrinoen sakabatzeko koherentearen goi-estatistikako neurketak egitea.

2020 eta 2021 urteetan, Hezkuntza Sailak DIPCri emandako dirulaguntzen bidez, presio handiko Xe Time (Xenonen denbora) proiektzio-kamera bat garatu eta eraiki da (XeESS detektagailua). 2022an, gas-laborategiko osagaiak instalatzea eta muntatzea da proiektuaren ardatza. Horrek, neurketa espezifikoak egiteko eta interakzio nuklearren aurrean gasen erantzuna ezaugarritzeko aukera emango du. Era berean, langile espezializatuen kontratazioa finantzatzen jarraituko da.

Hezkuntza

DIRULAGUNTZA ZUZENA UNEDi, EUSKAL KULTURAREKIN ETA HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO URRUTIKO PRESTAKUNTZA-PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, UNED Urrutiko Unibertsitateari zuzeneko laguntza ematea 2022eko ekitaldian euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin lotutako urrutiko prestakuntza-proiektuak finantzatzeko. Laguntza honek 82.490,00 euroko diru kopurua du.

UNEDen Euskadiko hiru ikastegien artean honela banatuko da dirulaguntza:

IKASTEGIA	
UNED VITORIA-GASTEIZ	31.500,00 €
UNED BERGARA	38.490,00 €
UNED BIZKAIA	12.500,00 €
GUZTIRA	82.490,00 €

UNEDen Euskadiko hiru ikastegi elkartuek dirulaguntza hau erabili beharko dute abian jarri dituzten hamabost ikastarok emateko, euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin lotutako urrutiko prestakuntza-programaren barruan, eta Eusko Jaurlaritzak euskal unibertsitate-sistamarako dituen helburuekin bat etorritz.

Finantzaketa handitzea

Hezkuntza Sailak eta UNEDek joan den apirilean sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez, besteak beste, Sailak UNEDen Euskadiko hiru ikastegien finantzaketan izango duen parte hartzea arautzen du. Hitzarmen horrek, berrikuntza gisa jasotzen zuen urteko finantzaketa handitzeko aukera, euskal kulturarekin eta hizkuntzarekin lotutako urrutiko prestakuntza-proiektuak garatzeko.

Laguntza berri hau, beraz, 2022an dagoeneko UNEDi eman zaion urteroko dirulaguntzari (500.000 eurokoa) gehitzen zaio. Gorago aipaturiko hitzarmenari jarraiki, joan zen ekainaren 7ko Gobernu Kontseiluan onartu zen UNEDen urteroko laguntza. Laguntza hauen bidez, Hezkuntza Sailak aintzat hartzen du UNEDen ikastegi hauek egiten duten lan akademiko, kultural eta sozial garrantzitsua, eta bere gain hartzen du Euskadin egiten dituzten jardueren laguntzen jarraitzea.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

BILBO, DURANGO, EIBAR ETA LASARTE-ORIAKO HIRI-BERRONERATZE INTEGRALERAKO NEXT FUNTSEN BAIMENA

Gobernu Kontseiluak baimendu ditu gaur, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Espainiako Gobernuarekin eta Bilbo, Durango, Eibar eta Lasarte-Oriako Udalekin egindako hitzarmenak, udalerrri horiei Next Generation EU funtsetatik zuzeneko dirulaguntzak emateko, eta horrela, bertako auzoen hiri-berroneratze integralerako programak bultzatzeko. Programa horiek dagoeneko martxan daude.

Funts horiek Gobernu zentralaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez ematen dira, eta 6,57 milioi euro bideratzen dituzte Otxarkoagako (Bilbo) hiri-berroneratzera, 2,15 milioi euro Txontan (Eibar) egiten ari den esku-hartzera, 3,66 milioi euro Aramotzera (Durango) eta 4,39 milioi euro Basaundi-Bailarara (Lasarte-Oria).

Guztira 16,77 milioi euro dira Europako funtsetatik bideratutakoak. Kopuru horri Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko auzo kaltebera horietan inbertitu dituen 13,97 milioi euro gehitu behar zaizkio. Jarduketan barruan sartzen dira eraikinak birgaitzea energia-efizientziaren ikuspegitik —haiek deskarbonizatze—, irisgarritasun unibertsala, suteen aurkako segurtasuna eta eraikinak handitzea, bizigarritasun-baldintzak hobetzeko; halaber, hiri-ingurunean esku hartzea sartzen da, azpiegitura berdeak eta urdinak eratuz, oinezkoentzako espazioa hobetzea eta autokontsumo partekatuko komunitateak sortzea, baita bizilagun horientzako beste prestakuntza-jarduketa batzuk eta enplegua sortzea ere.

Guztiek hurbileko bulegoak dituzte auzoan. Bulego horien bidez, auzokoan erkidegoei laguntza ematen zaie egin beharreko esku-hartzeetan, eta horretarako, eskura ditzaketen laguntzen berri ematen zaie bertan. Gizarte-izaerako jarduketak ere egiten dira, bai gazteenekin —beren denbora librean garatzen diren kultura-arloko ekimenen bidez—, bai helduekin, gizarte-gaietako, enpleguko eta gizarteratzeko sistemek osatutako sektoreen arteko mahaiak antolatuz; horietan, esparru bakoitzaren premia espezifikoak lantzen dira.

Lau auzo horiek auzo kalteberen hiri-berroneratze integralerako planeko lehenak dira. Plan horrek, hainbat finantzaketa-iturriren bidez, Euskal Autonomia Erkidego osoko 21 udalerrri hartzen ditu dagoeneko.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioa

IRUNGO GELTOKI BERRIAREN INTERMODALITATEA SUSTATZEKO HIRI-PASABIDEA ERAIKITZEKO HITZARMENA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak baimena eman du, gaur, Irungo Udalarekin eta Trenbide Azpiegituren Administratzailearekin (ADIF) lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, Renfeko geltokiaren bidaiarientzako eraikin berrira sarrera izango duen hiri-pasabide bat eraikitzeke. Azpiegitura horri esker, eremu horretan hiriko eta hiriarteko gainerako garraioetarako intermodalitate-eremu bat ezarri ahal izango da.

Pasabideak geltokiaren parean zeharkatuko du trenbide-zabaltza, eta 6,86 milioi euroko aurrekontua izango du. Kopuru horren % 22,22 (1,5 milioi euro) Eusko Jaurlaritzak jarriko du, % 33,33 ADIFek eta % 44,45 Irungo Udalak, proiektua idazteko, obrak egiteko eta azpiegitura martxan jartzeko. Azpiegitura berri horren bidez, tren-zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrek konexio zuzena izango dute Euskotrenen Lasarte-Oria / Hendaia linearekin, baita hiri-autobus lineekin ere, Irun Bidea izeneko eremuan. Era berean, Gipuzkoako udalerrri horretan trenbide-zabaltzak eragindako etena libratzea ahalbidetuko du.

Pasabideak geltokirako bigarren sarbide bat zabaltzea ekarriko du eta eraikina hiriaren erdigunearekin lotuko du. Pasabidea Geltokiaren plazarekin lotuko da mendebaldean, bidaiarien eraikin berriari atxikitako trenbide-zabaltza zeharkatuko du iparraldetik luzera osoan, eta Sebastian Errazu kalearen inguruarekin lotuko da ekialdean, tren-geltokiaren inguruko auzoentzako irisgarritasuna bermatuz.

Proiektua dagoeneko idazten amaitzen ari dira, eta datozen hilabeteetan obrak lizitatzea aurreikusita dago ADIFen eskutik.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO 2023-2026 ALDIRAKO MUGIMENT KIROL TXARTELA EAEKO UDALERRIETAN EZARTZEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI

Kultura eta Hizkuntza Politika sailak Osasun sailarekin lankidetzan herritarren jarduera fisikoa areagotu eta sedentarismoa murrizteko helburuz sortu zuen Mugiment ekimena. Gizarte aktiboago bultzatzeko asmoa duen ekimenaren barnean sartzen da Mugiment Kirol txartela ere. Herritarren artean jarduera fisikoa bultzatzea eta parte hartzen duten erakundeen azpiegiturretan ariketa fisikoa praktikatzeko erraztasunak ematea du helburu. Ekimenarekin bat egin duten udalerrietako kirol-azpiegiturretan sartzeko aukera eskaintzen du txartelak.

Gobernu Kontseiluak orain oniritzia eman dio 2023-2026 epealdian Mugiment egitasmoarekin bat egingo duten udalerriekin sinatuko diren lankidetzaz hitzarmenei. Guztira Eusko Jaurlaritzak 80.000 euroko aurrekontua bideratuko du gehienez urteko lankidetzaz honetarako.

Gaur egun 73 udalerririk daude Mugiment Kirol Txartelarekin bat eginda: Bizkaiko udalerririk guztiak, Gipuzkoako 20 eta Laudio, Amurrio, Iruña Oka eta Vitoria-Gasteiz, Araban.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 200.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EMANGO DIO ARTIUM FUNDAZIOARI BIZIRIK DAUDEN EUSKAL ARTISTEN ARTELANAK EROSTEKO

Hirugarren aldia da Eusko Jaurlaritzak bizirik dauden artisten artelanak erosteko dirulaguntza hau bideratzen duena eta 50.000 euroan handitu da kopurua. 2020. urtean martxan jarri zenetik helburu hirukoitza du:

1. Pandemiak gogor jotako sektore ezegonkorrean ekonomia arintzea
2. Ondare historiko artistiko publikoa aberastea eta eguneratzea
3. Museoen eta euskal arte garaikidean espezializatutako zentroen arteko ekintza bateratua eta koordinatua indartzea.

Dirulaguntza honen bidez Artium Museoak, Bilboko Arte Eder Museoak eta Tabakalerak elkarlanean erabakitzen dute zein artelan erosi. Horrela Gasteizko museoak Euskadiko gainerako museoekin partekatu daitekeen bilduma bat osotzen jarraituko du.

2020. urtean jarri zen abian lehenengoz dirulaguntza hau eta orduan, 150.000 euroko partidarekin 24 euskal artistaren 34 lan eta edizio grafikoko 8 ale erosi ziren. 2021. urtean beste 150.000 euroko dirulaguntza bat bideratu zen Artium Museora eta Bilboko Arte Eder Museoarekin eta Tabakalerarekin elkarlanean 15 euskal artistaren 49 artelan erosi ziren.

Gobierno Vasco

**25 DE NOVIEMBRE-DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA
VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES**

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Gobierno Vasco quiere mostrar hoy, a tres días de la celebración del 25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia machista contra las mujeres, su más firme repulsa ante todas las expresiones de violencia machista y su compromiso de seguir trabajando coordinadamente con otras instituciones y la sociedad en su conjunto hacia su eliminación.

Este 25 de noviembre queremos destacar la importancia de dar una respuesta de país al problema de la desigualdad y de la violencia machista. Ante un problema de toda la sociedad, la respuesta debe ser conjunta. Siguiendo esta máxima, vamos a seguir dando pasos en el trabajo coordinado con la próxima firma del III Acuerdo Interinstitucional para la mejora de la atención a las mujeres víctimas de violencia machista; con el proyecto hacia una gestión integrada de los expedientes de las mujeres víctimas; y con, entre otros, el impulso del Pacto para la Igualdad y vidas libres de violencia contra las mujeres.

Una muestra del refuerzo de esta coordinación es precisamente la campaña del 25 de noviembre que lanza anualmente Emakunde y que este año firman todas las instituciones del país: Gobierno Vasco, diputaciones y EUDEL en representación de los municipios vascos. Una campaña que se dirige a los hombres y en la que son los propios hombres los que se rebelan y dicen no ante la violencia machista. Una apelación necesaria y alineada, además, con las directrices del Convenio de Estambul del Consejo de Europa, de la propia Ley para la Igualdad, o del Pacto de País por la Igualdad, que instan, todos ellos, a impulsar la sensibilización y la implicación de hombres y niños.

Finalmente, queremos recordar a las víctimas mortales de la violencia machista, mostrar todo nuestro apoyo y solidaridad a las mujeres víctimas y supervivientes y recordar que tienen a su disposición todos los recursos y servicios de los que dispone este Gobierno para su atención, con el teléfono 900 840 111 como puerta de entrada al sistema.

Queremos, asimismo, animar a la ciudadanía a que manifieste públicamente su repulsa ante la violencia machista en las distintas convocatorias que se organicen el próximo 25 de noviembre, mostrando así que la violencia contra las mujeres es un problema de toda la sociedad.

Seguridad

EL CONSEJO DE GOBIERNO AUTORIZA EL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON AVASA, CONCESIONARIA DE LA AP-68

- **El convenio estará vigente hasta el vencimiento de la concesión, en 2026**
- **Regulará la cooperación y el intercambio de información viaria para la mejora de la Seguridad Vial**

El Consejo de Gobierno ha autorizado el convenio de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma Vasca, a través del Departamento de Seguridad, y la Autopista Vasco Aragonesa, CESAU, (en adelante AVASA), concesionaria de la autopista AP-68.

